



**ANIZTASUN, BIZIKIDETZA ETA  
BELAUNALDIARTEKO  
ELKARTASUNAREN  
ZUZENDARIAREN EBAZPENA,  
TRANSEN DOKUMENTAZIO  
ADMINISTRATIBOARI BURUZKO  
DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO,  
HERRITARREI AURRETIAZKO  
KONTSULTA EGITEKO.**

**RESOLUCIÓN DEL DIRECTOR DE  
DIVERSIDAD, CONVIVENCIA Y  
SOLIDARIDAD INTERGENERACIONAL  
POR LA QUE SE SOMETE A  
CONSULTA PREVIA A LA  
CIUDADANÍA LA ELABORACIÓN DEL  
PROYECTO DE DECRETO SOBRE LA  
DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA  
DE LAS PERSONAS TRANS.**

Aniztasun, Bizikidetz, eta  
Belaunaldiarteko elkartasunaren  
Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du  
transen dokumentazio administratiboari  
buruzko dekretu-proiektua egitea.

La Dirección de Diversidad,  
Convivencia y Solidaridad  
Intergeneracional considera necesaria la  
elaboración del proyecto de decreto  
sobre la documentación administrativa de  
las personas trans.

Beharrezkotzat jotzen den dekretu-  
proiektuaren xedea da transek erabili ahal  
izango duten dokumentazio  
administratiboa arautzea, dagokien  
Erregistro Zibilean erregistroko zuzenketa  
lortu arte.

El objeto del proyecto de decreto  
cuya elaboración se considera necesaria  
es regular la documentación  
administrativa de la que podrán disponer  
las personas trans mientras no hayan  
obtenido la rectificación registral en el  
correspondiente Registro Civil.

Aurreko hori guztia, transek  
benetako berdintasun eraginkorra  
bermatzeko, eta baita administrazio  
publikoekin dituzten harremanetan  
diskriminazio egoerak ekiditeko ere.

Todo ello, con la finalidad de  
garantizar la igualdad real y efectiva de  
las personas trans y prevenir situaciones  
de discriminación en sus relaciones con  
las Administraciones Públicas.

Xedapen Orokorrek Egiteko  
Prozedurari buruzko ekainaren 30eko  
6/2022 Legearen 11. artikuluan  
xedatutakoaren arabera, xedapen  
orokorra izapidetzea sustatzen duen  
zuzendaritza-zentroak edo -organoak  
gizartearen iritzia eskatuko du,  
aurretiazko kontsulta publikoan, arau-  
testu juridikoaren proposamena idatzi  
aurretik.

De conformidad con lo dispuesto  
en el artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30  
de junio, del Procedimiento de  
Elaboración de las Disposiciones de  
Carácter General, el órgano o centro  
directivo promotor de la tramitación de la  
disposición de carácter general recabará  
en consulta pública previa y, con carácter  
previo a la redacción de la propuesta de  
texto jurídico normativo, la opinión de la  
sociedad.





Aurretzako kontsulta publikoaren izapidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitzako iragarki taulan iragarri egingo da.

Aurretzako kontsulta publikoaren iragarkiak honako alderdi hauei buruzko iritzia ematera gonbidatuko ditu herritarrek:

- a) Dekretua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- b) Dekretuaren helburuak.
- c) Konpondu nahi dituen arazoak.
- d) Egon daitezkeen ordezkari aukera arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 9.i) artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

#### **EBAZTEN DUT**

Herritarrei gonbidapena egitea, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 15 egunetako epean ebazpen honen eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

El trámite de consulta pública previa se realizará mediante el anuncio en el tablón de anuncios de la sede de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El anuncio de consulta pública previa invitará a la ciudadanía a que se pronuncie acerca de los siguientes aspectos:

- a) La necesidad y oportunidad de aprobar el decreto.
- b) Los objetivos del decreto.
- c) Los problemas que pretende solucionar.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

En virtud de las competencias atribuidas por el artículo 9.i) del Decreto 320/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico,

#### **RESUELVO**

Invitar a la ciudadanía a que, durante el plazo de 15 días, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta resolución en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se pronuncie acerca de la información contenida en el anexo de esta resolución.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

**Txema Ezkerra Fernandez**

DIRECTOR DE DIVERSIDAD, CONVIVENCIA Y SOLIDARIDAD INTERREGIONAL

ANIZTASUN, BIZIKIDETZA ETA BELAUNALDIARTEKO ELKARTASUNAREN  
ZUZENDARIA



## ERANSKINA

### 1.- Dekretua onestearen premia eta egokitasuna.

Trans errealitateak aitortzearekin loturik arauak izan duten bilakaeraren babesean, Eusko Legebiltzarrak, Autonomia Estatuaren I. tituluan jasotako eskumenak baliatuz, otsailaren 15eko 4/2024 Legea onartu zuen, Trans pertsonak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa (aurrerantzean, 4/2024 Legea), eta, horrela, ekainaren 28ko 14/2012 Legea indarrrik gabe utziz.

Arau horrek gai garrantzitsuak biltzen ditu pertsona transek euskal administrazio publikoengandik arreta integrala eta hezkuntzan, osasunean, arlo juridikoan eta beste arlo batzuetan dituzten beharriak egokitu jasotzeko duten eskubidea erabat bermatzeko, gainerako herritarren baldintza berberetan, bai eta pertsona horien pertzepzio sozial eta instituzionalari modu negatiboan eragiten dioten estereotipoak gainditzen laguntzeko eta gizarte bidezkoagoa, askeagoa, eta pertsona transen tratua eta aukera-berdintasunean eta aniztasuna balio erantsi gisa onartzean oinarritua lortzeko helburuz neurri zehatzak ezartzeko ere.

Ondorioz, komeni da -zentsuzkoa baita erregulazio berriaren arabera-, arau berri bat egitea, pertsona transexualen dokumentazio administratiboari buruzko 234/2015 Dekretua aldatuko duena. Izan ere, 4/2024 Legeko 9. artikuluan arauz aginduta dagoenez, erregelamendu bidez aukera bat garatu behar da, Estatu Administrazioaren esku dagoen dokumentazioa aldatzen ez den bitartean transek administrazio-dokumentazio egokia izan dezaten, hartara prozesu horretan integrazio hobea ahalbidetzeko, sufrimendu- edo diskriminazio-egoerak

## ANEXO

### 1.Necesidad y oportunidad de aprobar el decreto.

Al amparo de la evolución normativa asociada al reconocimiento de las realidades trans, el Parlamento Vasco, en el ejercicio de las competencias recogidas en el Título I de su Estatuto de Autonomía, aprobó la Ley 4/2024 de 15 de febrero, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas trans (en adelante, Ley 4/2024) derogando así la Ley 14/2012, de 28 de junio.

Dicha norma recoge cuestiones relevantes de cara a garantizar plenamente el derecho de las personas trans a recibir de las administraciones públicas vascas una atención integral y adecuada a sus necesidades educativas, sanitarias, jurídicas y de otra índole en igualdad de condiciones con el resto de la ciudadanía, así como a contribuir a la superación de los estereotipos que afectan negativamente a la percepción social e institucional de estas personas y a establecer medidas concretas para conseguir una sociedad más justa, libre, y basada en la igualdad de trato y de oportunidades de las personas trans.

En consecuencia, de conformidad con la nueva regulación, se justifica la conveniencia de elaborar una nueva norma que modifique el Decreto 234/2015 sobre la documentación administrativa de las personas transexuales, en virtud del mandato normativo recogido en el artículo 9 de la Ley 4/2024, de desarrollar reglamentariamente la posibilidad de que las personas trans cuenten, mientras no se modifique la documentación pendiente de la Administración estatal, con documentación administrativa adecuada, al objeto de favorecer una



saihestuz.

mejor integración durante dicho proceso, evitando situaciones de sufrimiento o discriminación.

## 2.- Dekretuaren xedeak.

Dekretu-proiektu honen xedea da 4/2024 Legearen 9. artikuluan jasotako aurreikuspenak erregelamendu bidez garatzea, administrazio-dokumentazioa trans pertsonen sexu- edo genero-identitateara egokitzeari dagokionez.

Praktikan, dokumentazio ofizialean agertzen diren datuen eta sentitzen duten identitatearen arteko bat ez etortzeak deserosotasun-egoerak, alferrikako esposizioa eta diskriminazioa eragin ditzake, bereziki zerbitzu publikoekiko harremanetan. EAeko administrazio publikoen eremuan identitate hori errespetatzen duen administrazio-jarduketa bat bermatu nahi du arauak.

## 3.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Administrazio-dokumentazioa sexu- edo genero-identitateara ez egokitzearen ondorioz, trans pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan jasan ditzaketen diskriminazio-egoerak, tratu-desberdinkeriak edo eskubide-urraketak saihestu nahi ditu ekimenak. Era berean, aniztasuna errespetatzen duen administrazio-jarduera bat bermatu nahi du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona guztien berdintasun erreala eta eraginkorra indartu.

## 2.- Objetivos del decreto.

El presente proyecto de decreto tiene por objeto desarrollar reglamentariamente las previsiones contenidas en el artículo 9 de la Ley 4/2024 en materia de adecuación de la documentación administrativa a la identidad sexual o de género de las personas trans.

En la práctica, la discordancia entre los datos que figuran en la documentación oficial y la identidad sentida puede generar situaciones de incomodidad, exposición innecesaria, e incluso discriminación, especialmente en las relaciones con los servicios públicos. La norma pretende garantizar una actuación administrativa respetuosa con dicha identidad en el ámbito de las administraciones públicas vascas.

## 3.- Los problemas que pretende solucionar la iniciativa.

La iniciativa pretende evitar situaciones de discriminación, desigualdad de trato o vulneración de derechos que puedan sufrir las personas trans en sus relaciones con las administraciones públicas como consecuencia de la falta de adecuación de la documentación administrativa a su identidad sexual o de género. Asimismo, persigue garantizar una actuación administrativa respetuosa con la diversidad y reforzar la igualdad real y efectiva de todas las personas en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.



**4.- Bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.**

Azaldutako guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da dekretu berri bat egitea, eta ezin da beste alternatibarik hauteman.

**4.- Otras posibles soluciones regulatorias y no regulatorias.**

Por todo lo expuesto, se considera necesaria la elaboración de un nuevo decreto, sin que puedan apreciarse otras alternativas.